

Antibiotikoen aurkako erresistentzia bakterio zoonotikoetan, 2015

EFSAk eta ECDCk bakterio zoonotiko jakin batzuen antibiotikoen aurkako erresistentziei buruzko urteko txostena argitaratu dute; bakterio horiek dira *Salmonella*, *Campylobacter* eta *Escherichia coli*.

Honako hauek izan dira azterlanaren ondorio nagusiak:

Salmonella eta E. coli

Gizentzeko txerrietan eta urtebete baino gutxiagoko txahaletan hartutako *Salmonella* eta *E. coli* laginetan, kasu askotan ikusi ziren anpizilina, tetraziklina eta sulfonamidekiko erresistentziak. Aldiz, ez ziren hirugarren belaunaldiko zefalosporinekiko erresistentzien kasu asko agertu.

Lehen aldiz aztertu da espektruzabaleko betalaktamasa/AmpC/karbapenemasarekiko erresistentzia *Salmonella* eta *E. coli* bakterioetan, honako kasu hauetan: 1) *Salmonella* gizakietan, 2) Txerri- eta txahal-haragian, 3) Gizentzeko txerrietan eta txahaletan. Erresistentzia mota horretan aldakortasun handia ikusi zen estatu kideen artean, eta *E. coli* lagin erresistente bakarra aurkitu zen txerri-haragian, eta beste bakar bat gizentzeko txerrietan.

Ikusi zen *Salmonella* eta *E. coli* bakterioek kolistinarekiko erresistentzia-maila baxuak zituztela gizentzeko txerrietan eta urtebete baino gutxiagoko txahaletan, baita horien haragietan ere.

Gizakien kasuan, *Salmonella* lagin askok anpizilina, sulfonamida eta tetraziklinekiko erresistentzia agertu zuten; aldiz, hirugarren belaunaldiko zefalosporinekiko erresistentzia txikia izan zen.

Campylobacter

Gizakietan, *Campylobacter* isolatuaren laginen ehuneko handi bat ziprofloxazino eta tetraziklinekiko erresistenteak zirela ikusi zen, batez ere *C. coli*aren kasuan. Herrialde batzuetan, gizakiengandik hartutako laginen % 33 eta % 50 artean eritromizinarekiko erresistenteak ere baziren. Horrek esan nahi du bakterio horrek eragindako infekzio larriak tratatzeko aukera terapeutiko gutxi daudela.

Gizentzeko txerrietan, laginen ehuneko handi bat ziprofloxazino eta tetraziklinekiko erresistenteak zirela ikusi zen; eritromizinarekiko erresistentziaren mailak, aldiz, askoz ere baxuagoak izan ziren.

Erresistentzia anitzen kasuak

Ez ziren askotan detektatu garrantzi terapeutiko handiko antibiotikoekiko erresistentzia anitzak, ez gizakien ez animalien kasuan.

The European Union summary report on antimicrobial resistance in zoonotic and indicator bacteria from humans, animals and food in 2015 (<http://ecdc.europa.eu/en/publications/Publications/antimicrobial-resistance-europe-2015.pdf>)

Erresistentzien Mapa Interaktiboa, 2015

(https://www.efsa.europa.eu/en/interactive_pages/AMR_Report_2015#)

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 . berri@elika.eus
(<mailto:berri@elika.eus>)